

### "UDALEKUAK 2023"RAKO BEGIRALEEN IZEN-EMATEA

Pasaia Udalaren Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sailak uztailerako antolatu dituen "Udalekuak" egitarauan begirale izan nahi duenari jakinarazten dio **izena emateko epea apirilaren 26an hasi eta maiatzaren 3an amaituko dela.**

Hautaketa-prozesu honen ondorioz sortuko den zerrenda beste egitarau edo behar batzuetarako erabili ahal izango da.

"Udalekuak 2023"ko **izen-ematea** aurreko urteetan jarritako sistemaren bitartez egingo da: <http://www.hezten.eus/zerbitzu-orrialdeak/pasaia-udaleku-irekiak-2023/> estekaren bidez egin beharko da. Horretarako bi pauso jarraitu behar dira:

1.- Aipatutako estekan sartuta, erabiltzaile berri bat sortu eta lan poltsan eskatzen diren atalak bete (erabiltzailea eta pasahitza gogoan izan beharko dira geroago moldaketak egin nahi badira)

2.- Lan poltsa horretako lan eskaintzetan Pasaia Udaleku Irekietan lan egiteko hautua egin.

\* Pertsonaren batek aurrez Hezteneko lan poltsan izena emana badu, berri nahi dituen atalak osatu besterik ez du (aurrez jarriak daudenak egokiak direla konfirmatzearekin batera).

Informazio gehiagorako <http://www.hezten.eus/zerbitzu-orrialdeak/pasaia-udaleku-irekiak-2023/> bisitatu.

Udalekuetan onartua izateko eta hautaketa prozesuan **parte hartzeko baldintzak** hauek izango dira:

- 18 urte izatea.
- Euskara jakitea (dagokion lan poltsako atalean C1 edo baliokidea aurkeztuz. Hala egiten ez duenak hautaketa prozesuko talde elkarrizketa bidez frogatu beharko du).

Udalekuetan lan egiteko hezitzaileen hautaketa prozesuak bi fase izango ditu: alde batetik, talde elkarrizketa eta, bestetik, curriculumaren baremazioa. Bigarren fase horretara igarotzeko derrigorrezkoa izango da talde elkarrizketa gainditzea.

\*Lehenago Pasaia Udaleku Irekietan aurkeztutakoek aurreko urteko emaitza mantentzea nahi badute, aurrez ez dute talde elkarrizketarik egin beharko eta aurreko urteko emaitza hartuko da kontuan hautaketa prozesurako.

Behin bi fase hauek bukatuta bi ataletan lortutako puntuazioen batura egingo da: atal bakoitzak % 50eko balioa izango du. Lortutako emaitza horren arabera hurrenkera izango du hezitzaileen zerrendak. Haur kopuruaren arabera udalekuetan beharko den hezitzaile kopurua zehaztuko da.

#### - Formazioa eta lan esperientziaren balorazioa:

- ✓ Aisialdiko begirale agiria E.H.n (3 puntu)
- ✓ Aisialdiko begirale ikastaroaren atal teorikoa E.H.n (1,5 puntu)
- ✓ Aisialdiko begirale agiria E.H.tik kanpo (1,5 puntu)
- ✓ Aisialdiko begirale ikastaroko atal teorikoa E.H.tik kanpo (0,75 puntu)

- ✓ Aisialdiko zuzendari agiria E.H. n (1,5 puntu)
- ✓ Aisialdiko zuzendari ikastaroaren atal teorikoa E.H.n (0,75 puntu)
- ✓ Aisialdiko zuzendari agiria E.H.tik kanpo (0,75 puntu)
- ✓ Aisialdiko zuzendari ikastaroaren atal teorikoa E.H.tik kanpo (0,37 puntu)
- ✓ Heziketarekin harremana duten Unibertsitate ikasketak amaiturik izatea (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Gizarte Hezkuntza, Pedagogia, Soziologia ... graduak) (2 puntu)
- ✓ Heziketarekin harremana duten Lanbide Heziketako ikasketak amaiturik izatea (Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria, Gizarteratzeko goi mailako teknikaria ...) (1 puntu)
- ✓ Heziketarekin zer ikusia duten LHko edo Unibertsitateko ikasketak egiten (0,25 puntu)
  - \*Azken hiru arlo hauek batuta gehienez 4 puntu
- ✓ Udaleku itxietan: 10 egun edo gehiago 0,75 puntu bakoitzak  
10 egun baina gutxiago 0,50 puntu bakoitzak
- ✓ Udaleku irekietan: 10 egun edo gehiago 0,50 puntu bakoitzak  
10 egun baina gutxiago 0,25 puntu bakoitzak
  - \*Azken bi arlo hauek batuta gehienez 4 puntu
- ✓ Aisialdiko talderen bateko partaide izatea (puntu 1)
- ✓ Aisialdiko egitasmoetan ikasturtea egin izana (puntu 1)
  - \*Aisialdiko taldeko partaide edo/eta aisialdiko egitasmoan parte hartzea Pasaian bada (puntu 1)

Merituak kontuan hartu ahal izateko, derrigorrez dagozkien ziurtagirien bitartez frogatu behar dira; ez du balio aurreko urtetan aurkeztu izanak. Horretarako lan poltsari dagokion atalean beharrezko ziurtagiriak atxiki beharko dira.

- Elkarrizketa-talde dinamika:

Iraupena: 45 minutu

Formatua: Taldeka

Edukiak: Hainbat dinamika proposatuko dira bi dinamizatzailerik gidatuta.

Baloratuko diren aldagaiak:

- Parte hartzea
- Giza trebetasunak
- Talde lanerako gaitasuna
- Euskara maila
- Diskurtsoa

Begirale **hautaketa** Trintxerpeko Udal Euskaltegian izango da (Euskadi etorbidea, 61), **maiatzaren 5ean, ostirala, 16:00etan hasita (talde bat baino gehiago egoteko aukera dagoenez, hitzordua ezberdinak emango dira).**

Hautagai asko baleude, eta antolakuntza arrazoiengatik beharrezkoa balitz, 11n (larunbat goizean) jarraipena izango luke.

Hautatuek oinarriko prestakuntza-ikastaro batean hartu beharko dute parte, gutxieneko prestakuntza bat izan dezaten Udalekuetarako beharrezkoak izango dituzten programazio ereduez, metodo pedagogikoez, eta bestelako gaiez. **Nahitaezkoa** izango da ikastaroan parte hartzea Udalekuetan lan egiteko. Ikastaroa Pasaiaiko **Karmengo Ama ikastetxean egingo da ekainaren 9an eta 10ean**. Ostiralean 15:30etik 20:30era eta larunbatean 9:00etatik 14:00etara.

Interesatuta baldin bazaude, estekara jo ezazu apirilaren 26tik maiatzaren 3ra bitarte: <http://www.hezten.eus/zerbitzu-orrialdeak/pasaiaiko-udaleku-irekiak-2023/> estekaren bitartez.  
Informazioa: HEZTEN: 943-270033 - lanpoltsa@hezten.eus – www.hezten.eus

**HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPEN SAILA**